

## Aitor Arruti

*Bartzelonako Euskal Etxeko koordinatzaile orokorra*

**1.** Kultura eta hizkuntzaren defentsan oinarritutako katalanismo kulturalak XIX. mendetik hona, eta katalanismo politikoak azken hamarkadetan indar handia izan dute. Baina independentziaren aldeko aldarriak azken lau urteotan baino ez du lortu hegemonikoa izatea. Nola osatu da diskurtso subiranista hori, eta nola iritsi da hegemoniko izatera?

Katalunian momentu hauetan dagoen mugimendu independentista, galderan aipatzen duzuen moduan, ez da batere homogeneoa. Mugimendu zeharkakoa da, gizarte katalaneko sektore oso anitzak biltzen dituena, Euskal Herrian gertatzen denaren kontra. Identitate arrazoiengatik datorrena dago, baina baita ekonomikoengatik datorrena, zein Espainiatik etengabe jasotzen diren mespretxu erasoengatik nazkatuta dagoena ere. Horregatik, gaur egun Katalunian bizi dugun prozesua ulertzeko ezinbestekoa da azken urteetan gertatutakoari so egitea, krisia bera iritsi aurretik hasten diren gertaerei.

2006an dugu lehen manifestazio handia, milioi bat pertsona antolatzaileen arabera, erabakitze eskubidearen ingurukoa, Estatutu berriaren babesean, baina baita azpiegituren inguruan inbertsio sakonak eskatzen zituena. Garai haietan

gertatzen dira Renfeko deskalabruak: egunero atzerapenak, geltokiak gainezka, katenaria hitza eguneko hiztegiaren parte bihurtzen da, trenak gainezka, geltokiak kolapsatuak... Nazional 2a, Madrildik mugara doana, Estatuan trafiko handienetakoa duena, gaur egun oraindik bikoizteko dago. Europako hegoaldeko portu nagusira ez da trena iristen, nahiz

Espainiatik bide hori  
elikatu besterik ez  
dute egiten, txinparta  
txiki horiei gasolina  
baldeak jaurtiz

eta txinatarrek izugarrizko inbertsioa egin duten. Bartzelonako hamaika auzo hainbat egunez argindarrik gabe geratzen dira erabat zaharkitua dagoen sareak gainezka egin duelako.

Horrek guztiak sortzen duen frustrazioari Estatutuarena gehitu behar zaio. Inoizko babes eta

akordio handiena lortu zuena, kontsentsu ia erabatekoa izan zuena, erabat murriztua geratu zen hainbat pausotan. Kongresuak sartu zion lehen aizkorakada Konstituzionalak boro-bildu zuen, hasierako testuaren %90etik gora aldatu zelarik. Hori nahikoa ez zela, Espainiatik zetozen erasoak eta mespretxuak areagotu ziren, «zer uste ote dute katalan hauek!».

Horrek bigarren manifestazio handia kaleratzea ekarri zuen, aurrekoa baino askoz jendetsuagoa, erabat baterakoia. Baina hori baino garrantzitsuago, Espainiarekin gaiak adostu behar zirela ziotenei lehen zalantzak sortu zitzaizkien. Gaur egun bizi dugun mugimendua esnatzen eta pizten hasten da. Eta Espainiatik bide hori elikatu besterik ez dute egiten, txinparta txiki horiei gasolina baldeak jaurtiz. Horren adibide bat: 10.000 lagunetara iristen ez den herri batean egin nahi duten saio sinboliko batek jasotzen dituen erasoek, ondorioz, Katalunia guztian herri galdeketak egitea ekartzen dute, eta Bartzelonan bertan ere egiten da. Nazio mailako lehen mugimenduak sortzen dira, eta arrakasta dute.

Eta, bien bitartean, urtetan funtzionatu duen taktika albo batera utziz, Madrilek ez dio ezer eskaintzen Kataluniari ez bere gobernuari. Guztiz kontrakoa, erasoek jarraitzen dute,

mespretxua gero eta handiagoa da (aspaldi etorritako zenbait espainiar etorkin ez doaz oporretara beren jaioterrietara, bizi duten egoera deserosoa dela eta), eta ukiezinak diren gai batzuk (ikas hizkuntza katalana izatea, adibidez) zalantzan jartzen hasten dira.

Paraleloki, krisi ekonomikoa sakontzen ari da, eta horrek murrizketak dakartza berarekin. Hezkuntza, osasuna, azpiegiturak, gizarte zerbitzuak kaltetzen dira. Borroka askoren ondoren lortutako eskubideak egun batetik bestera desagertzen hasten dira. Eta horrek azken bultzada ematen dio prozesuari, eta azken bi urteetan ikusi dugun erantzuna ematen dio gizarteak: bi milioi pertsona kalera, modu antolatuan, 400 kilometroko giza kate bat osatzeraino.

Beraz, faktore desberdin askoren ondorioa dela esango nuke azken urte hauetan bizi dugun prozesua eta independentismoak lortu duen hegemonia, ez krisiaren ondorioa bakarrik.

**2.** 2010etik hona, hainbat plataforma eta elkartetan antolatutako gizarte zibilak hartu du prozesu subiranistaren gidaritza, alderdi eta erakunde politikoak bide horretara ekartzea lortuz. Zergatik eta nola iritsi da gizarte zibila antolaketa-maila eta erakapen-indar hori izatera?

Lehen aipatu dugun moduan, horren guztiaren hazia herri galdeketek jarri zuten, eta hor argi geratu zen, askok uste zutenaren kontra, alderdietatik kanpo antola zitezkeela. Hori baino harago, alderdirik gabe mugimendua zeharkakoagoa zela. Eta maila nazionalean, gainera. Horrek txip aldaketa sakon bat ekarri zuen gizarteko hainbat sektoretan.

Galdeketen ondoren, beste hainbat herri aldarrikapen ere gizarte zibiletik kudeatu eta kontsolidatu dira, maila nazionalean, gai argi, konkretu eta zuzenetan: osasun sareko murrizketak, hezkuntzakoak, etxe kaleratzeak eta abar (guraso elkarteak, ikasleak, langileak...).

Horri gehitu behar zaio, noski, politika profesional eta bezerokoiak bizi duen deskreditua.

**3.** Nolako jarrera hartu dute gizarte katalaneko sektore ezberdinek prozesu subiranistaren aurrean? Zehazkiago, nola erantzun du kulturaren eta sortzaileen munduak?

Beren etorkizuna katalanek beraiek erabaki behar dutela kontziente diren sektore/agentek dira, hein batean, erabakitzeko eskubidearen kontzientzia orokor hau piztearen inguruan lan gehien egin dutenak. Sektore horien artean, hainbat artista (idazleengandik zinema zuzendariengana, musikariengandik pasatuz) erabakitzeko eskubidearen alde azaldu dira, beren lanen bidez zein komunikabideetan egindako adierazpenean, eta baita azken urteetan independentziaren alde egin diren mugimenduetan argi eta garbi parte hartuz.

**4.** 2014ko agertoki politikoa definituta dagoen bezala, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talkak saihestezina dirudi. Epe laburrera begira, zein erreakzio izango dute Kataluniako alderdi eta erakunde politikoek zein gizarte zibilak?

Behin puntu honetara iritsita, gizarte zibilak argi du ez dagoela aurrera egitea beste aukerarik, eta datorren azaroaren 9an bozka eskubidea praktikan jartzea. Horrek gizarte katalanaren babes osoa du, baita Legebiltzar katalanean dauden alderdien gehiengoarena ere.

Dena den, eta alderdiek gizartearen interesak behin baino gehiagotan zapuztu dituztenez iraganean, gizarte zibil antolatua garbi du gertakariei aurre hartu behar diela eta prozesuaren motorra izaten jarraitu behar duela.

Plazaratzen ari diren proposamenak konstruktiboak eta modu baikorrean eginak direla azpimarratzea garrantzizkoa da dena den, inoiz espainiar gizartea erasotzeko asmorik gabekoak. Puntu horri Espainiako Estatuaren erantzun ezkor eta erasokorrak batzen badizkiogu, denbora gutxian independentzia eskaerari gehitu zaizkionak asko hazten lagundu dute.

Baliteke gobernuan dagoen alderdiak zein prozesu hau babesten dutenek eskaerak murrizteko tentazioa izatea, baldin

eta (ia aukerarik ez duen) Espainiako Estatuak eskaintza-  
ren bat egitea erabakiko balu. Baina kalean sumatzen den  
giroak aldarri independentista mantentzea eta areagotzea  
eskatzen du, helburu argi eta ukaezin batekin: azaroaren  
9ko galdeketa.

ANC buru duen gizarte zibilak lidergo horri uko egin  
ezean, edozein alderdik egin dezakeen edozein atzerapauso,  
txikiena ere, suizidio politikoa litzateke.

**5.** Kataluniako prozesu subiranistaren azken fase edo  
geltokia estatu independentea da. Azken helburua argi  
egonagatik, zer proposamen daude estatu horren disei-  
nuaren definizioari begira?

Gizarteko sektore asko ari dira prozesura batzen azken urte  
eta hilabeteetan. Horretan, lehen aipaturiko moduan, bizi du-  
gun krisi egoerak eta gobernu  
desberdinetatik gauzatzen ari  
diren murrizketek izan dute  
zerikusia, jende askorentzat  
egoera honi buelta emateko  
aukera bakarra independen-  
tzia baita.

Zentzu honetan, estatu in-  
dependente berriaren ingur-  
uko proposamen sozioeko-  
nomikoak plazaratzen ari di-  
ra.

Sistema aldatzeko aukera paregabea dela ikusarazi nahi duten ahotsak gero eta ozenagoak dira gainera, ustelkeriak gaintitzeko, eraginkortasuna hobetzeko, sistema justuago bat izateko. Dena den, benetako debatea eta erabakiak gi-  
zarte berriaren oinarri konstituzionalak ezartzerakoan egin beharko dira.

Euskal Herrian gertatzen den moduan, hemen ere nazioa-  
ren inguruko debate bat ere badago, zati batek independen-  
tzia lortzeak izan ditzakeen alde onak eta txarrak plazaratzen  
baitira.

Sistema  
sozioekonomikoa  
aldatzeko aukera  
paregabea dela  
ikusarazi nahi duten  
ahotsak gero eta  
ozenagoak dira

## 6. Zer irakaspen izan ditzake Euskal Herriarentzat Kataluniaren prozesu subiranistak? Eta zer ekarpen egin diezaioke Euskal Herriak prozesu horri?

Hasieran esandako moduan, bi prozesu erabat desberdinak dira. Katalunian bizi duguna prozesu zeharkakoa da, aberri identitatea baino askoz ere harago doa, gizarte zibila du buru eta politikariek hari jarraitu beste aukerarik ez dute izan. Borroka armaturik gabekoa.

Aberri identitate hori ez duten euskaldunei Euskal Herri independente batek izan ditzakeen abantailak ikusaraztea litzateke momentu honetan bizi den egoerari bultzada bat emateko gakoa, agian, Katalunian gertatu den moduan.

Euskal Herriak egin diezaiokeen ekarpenari dagokionean, babesa litzateke oinarrizkoena. Babes instituzionala, alderdiena, gizarte zibilarena. Askatasunari dagokionean, herri baten hitzaren gainetik ez baitago ez lege, ez gobernu, ez eta epailerik. 